



NORMALITATE BERRIRA EGOKITZEA. 2020-21 IKASTURTEA

Beste berririk izan ezean, irailaren 15an ikasleak ikastetxera bertaratzen direnean honako arauak jarraitu beharko dituzte. Dena den, egoera alda daitekeela kontuan izanik jarraibide hauek ere alda daitezke.

GAIXOTASUNAREN SINTOMAK ANTZEMANEZ GERO

- COVID19arekin bateragarriak diren **sintomak** (sukarra, eztula, arnasa hartzeko zailtasuna...), dituzten **ikasleak ez dira ikastetxera bertaratuko** eta osasun zentrura deituko dute.
- COVID19a diagnostikatu zaielako **isolatuta** dauden ikasleak ez dira ikastetxera bertaratuko.
- Diagnostikoa jaso duen lagunen batekin harreman estuan egon delako etxean **berrogeialdian** dagoen ikaslea ere ez da ikastetxera bertaratuko.

- **Etxeko norbaitek COVID19aren diagnostikoa** jaso badu, gurasoek edo tutoreek horren **berri emango** dute ikastetxean.

GAIXOTASUNAREN SINTOMAK IKASTETXEAN IZANEZ GERO

- **Ikastetxean gaitzaren sintomak antzemanaz gero** (sukarra, eztula, arnasa hartzeko zailtasuna...), **ikaslea COVID gelara eramango da eta jasotzea** eskatuko zaio familiari. Familiak osasun zentrora deitu beharko du eta bertan aztertuko da ikaslearen egoera. Balorazioa izan arte, pertsona hori isolatuta mantenduko da.
- **Ikastetxean erantzunaren berri emango da.**

NOLA ETORRI ETA NOLA IBILI IKASTETXEAN

IKASTETXEKO EREMU OSOAN ZEHAR MASKARAREN ERABILERA DERRIGORREZKO IZANGO DA.

1.- **Sarrera, IRAILAREN 16TIK AURRERA**, taldeka izango da; **gelaka** ordutegi honen arabera:

| ORDUA | TALDEA | LEKUA |
|-------|----------------|----------------------------------------|
| 7:45 | 1A, 1B, 1C, 1D | Gelatik hurbilen dauden eskaileretatik |
| 7:50 | 1E, 1F, 1G, 1H | Gelatik hurbilen dauden eskaileretatik |
| 7:55 | 1I, 1J, 1K, 1L | Gelatik hurbilen dauden eskaileretatik |
| 7:45 | 2A, 2B, 2C, 2D | Gelatik hurbilen dauden eskaileretatik |
| 7:50 | 2E, 2F, 2G, 2H | Gelatik hurbilen dauden eskaileretatik |
| 7:55 | 2I, 2J, 2K, 2L | Gelatik hurbilen dauden eskaileretatik |



2.- Eraikuntzara sartu aurretik, ikasleek **eskuak garbituko** dituzte sarreran prest egongo den hidrogelarekin.

3.- Sartzeko, **jarraitu zehaztutako norabidea**, arau orokorra ikastetxean mugitzeko modua **eskubialdetik** izanik eta elkarren artean **1.5 m-ko distantzia mantenduz**.

4.-Geletan, ikasle bakoitzak **BETI ESERLEKU BERDINA** erabiliko du eta okupaatua egon den gela berri batera sartzen den bakoitzean bere mahaia garbituko du.

5.- Gela **aireztatua** mantenduko da.

6.- Ikasle bakoitzak, beharrezkoa duen **materiala ekarri eta eramango du egunero**, eta beste ikasleekin **partekatzea saihestuko** du.

7.- Gela guztiek, **hidrogela, erabili eta botatzeko paperezko mukizapiak eta pedaldun eta tapadun zaborrontziak** edukiko dituzte.

- Saiatu eskuak gutxienez, bi orduetik behin hidrogelarekin garbitzen eta goizean behin, ura eta xaboiarekin.

- Ahal den neurrian, komunera joateko klase orduetan baimena eskatu, pilaketak saihesteko.

- **Komunetan, banaka** sartu eta besteok korridorean itxaron **distantzia soziala errespetatuz**.

8.- **Irteera**, IRAILAREN 15etik AURRERA, gelaka, ordutegiaren arabera eta zehaztutako norabidea jarraituz.

| ORDUA | TALDEA | LEKUA |
|-------|----------------|----------------------------------------|
| 14:55 | 1A, 1B, 1C, 1D | Gelatik hurbilen dauden eskaileretatik |
| 15:00 | 1E, 1F, 1G, 1H | Gelatik hurbilen dauden eskaileretatik |
| 15:05 | 1I, 1J, 1K, 1L | Gelatik hurbilen dauden eskaileretatik |
| 14:55 | 2A, 2B, 2C, 2D | Gelatik hurbilen dauden eskaileretatik |
| 15:00 | 2E, 2F, 2G, 2H | Gelatik hurbilen dauden eskaileretatik |
| 15:05 | 2I, 2J, 2K, 2L | Gelatik hurbilen dauden eskaileretatik |